

# Sagardotegiek zabaldu dituzte ateak

- Aurtengoa ere sagar urte eskasa izan da maiatzean izan zen hego haize beroarengatik.
- Sagardozaleen mugimendu handiena Ihaulerrietatik aurrera hasi eta Pazko egunerarte izango da.

San Sebastian eguna pasa bezain laster presatzen dira Gipuzkoako sagardotegiak denboraldia hastera eta sagardozaleek ez dute asko itxaroten bertara joan eta kupel ondoan afari ederrak egiteko. Astigarraga da kopuru gehien biltzen den gunea eta ofizialki ostiralean zabaldu zituzten ateak. «Txotxl» izango da oihu majikoa, entzun da bezain laster guztiak kupel ondora abiatuz.

X. ARAMENDI



Sagardozaleek kupeletik mahaira bidea ibiliko dira «Txotxl» oihua entzun zain.

ARCHIVO

Urtarrilarekin batera Gipuzkoako sagardotegiak beren ateak zabaldu dituzte eta apirila bukaera bitartean zaleek izango dute aukerarik sagardoa txotxetik dastatzeko, tortilla, haragia, intxaurrak, gazta eta membriloaz lagundurik.

Astigarraga da dudarik gabe sagardotegien hiriburua, bertan biltzen bait da Gipuzkoako sagardotegien gehiengoa, hamasei hain zuzen ere. Ondorioz, inguruan nabari izaten da denboraldia martxan dagoenean, mugimendu ederra egoten bait da herriko kaletan.

Lehenengo ostiralean ospatu zen Astigarrako Udalak azken urteotan antolatutako ohi duen inaugurapen ofiziala eta Gurutzeta sagardotegiaren txanda izan zen aurtengoa. Jokin Sorozabal, Millan Telleria eta Inaki Murua jertsolarik giro ederra jarri zuten ifarian zehar eta beraz, denboraldia zabalik geratu zen.

## 38 sagardotegi

Juztira 68 sagardotegi daude probintzian, Donostia, Hernani, Jaurbil, Tolosa eta Zizurkilen okatuak eta izango hiru sagardotegi berri zabaldu ziren, bi Urrietan eta beste Andoainean.

Joxe Mari Irizar, herrialdean auden bi sagardogile elkarteetako batetako lehendakariak adierazten duenez aurrean ez da sagardotegi berririk ireki. «Igualtsu aude, nobedaderik gabe».

San Sebastian eguna izan ohi da denboraldiaren hasera markatzen duena eta hasera arintxoan aten da, «patrikak ez bait dira ero egoten». Garai onena Ihaulerrietan ostean etortzen da Pazko gunerabitartean, eta orduan bai, sagardotegiak gainezka egoten dira.

Prezioari dagokionez ez da alkiteta handirik izango eta 500 zeta ordaindu beharko du pertsona bakoitzak sarreragatik. Bona, berri, hogierleko batetan ga-

restitu da, 100etik 105 pezetara igoz.

Aurtengoari dagokionez, sagar urte eskasa izan da maiatza aldean hego haize beroa egin bait zuen. Halere, sagardogileen ustetan ez du honek produktuaren kalitatearengan eraginik izango, «oso sagar ona ekarri bait dugu». Ezaguna da Gipuzkoako produktio mugak bultzatuta kanpora, normalean Galiza edo Normandiara jo beharrean aurkitzen direla sagar bila eta aurtengoa ere ez da salbuespena izan. Juztira, aurtengo produktioa 5 milioi t' erdi litro ingurukoa izan da.

## Barietate berriak

Sagardogileak ez daude geldirik eta dagoeneko badira hiru urte Diputazioako teknikoekin batera sagar barietate berriak ikertzen hasi zirela eta horretan dihardute: «lehen airean zeuden parametro berriak lortzen ari gara eta aurrera goaz. Kimika Fakultatean eta Hondarribiako Zubietan Foru Aldundiak duen etxea dira ikerketa hauen kokagunea. Barietate zaharrak eta berriak aztertuz sagarra hobetze bidean doaz eta oraindik beste urte bete dute aurrera. Halere, Irizarrek argi esaten du horrekin ez dela guztia amaituko.

«Elkartek duen erronketariko bat sagardozaleak botilatik edatera ohitzea da eta ez kupelatik soilik. Datu gisa San Sebastian egunean Asturias aldetik Donostiara etorri ziren eta harrিতa gelditu ziren sagardotegietan hainbeste jende eta gero urtean zehar etxeetan eta tabernetan ez dela edaten ikusteaz. «Asturiasen alderantziz gertatzen da, ia sagardo dena botilan edaten bait da».

Kontutan harturik urteko produktioaren %4a soilik edaten dela «txotxl»etik, sagardogileen ustez ezinbestekoa da sagardo enbotailatua saltzea eta hori bultzatzearen herrietan zehar dastatzeko aukera eskeintzen dute, zaleetuek botilatik edan dezaten.

## Sagardo Etxea

Elkarteko kideak Sagardo Etxe baten atzetik dabilta azken urteotan baina badirudi epe motzean ez dutela lortuko oraindik ez bait da erabaki on egokitu den.

Aurreproiektua egiteko dirua ere jarria du sagardogileen elkarteak dago baina oraindik behintzat ez da ezer finkorik ikusten. Astigarraga da aldeko eritzi gehien dituen baina Urrietan ere proposamena izan da eta ez da ezer erabaki, bilerak aurrera segitzen dutelarik.



Apirilaren amaierarte luzatuko da sagardotegien denboraldia.

ARCHIVO